

2019-19 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa

ikastetxea: <i>centro:</i>	URIBEKOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	4.MAILA
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	TEKNOLOGIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	TEKNOLOGIAK		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	HKG-Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna MG-Matematikarako gaitasuna AG-Arte-kulturarako gaitasuna GHG-Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna ZG-Zientziarako gaitasuna TG-Teknologiarako gaitasuna		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	GAIZKA IRIBAR LARREA	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018-19

Zeharkako gaitasunak:

- PIG-Pentsatzen eta ikasten ikasteko gaitasuna
- HHG-Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
- EG- Elkarbizitzarako gaitasuna
- NAG-Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
- IIG- Izaten ikasteko gaitasuna

helburuak	ebaluazio-irizpideak
<p>1. Lanak eta proiektuak jorratzean norberari edo taldeari sortzen zaizkion premiak hautematea eta erronkak bezala argudiatzea. (TG, HKG, PIG, HHG, EG, NAG, IIG)</p> <p>2. Ekoizkin teknologikoak eta sistemak analizatzea, haien eginkizunaz eta funtzionamenduaz jabetzeko. (TG, PIG, HHG, GHG, NAG)</p>	<p>1.1. Taldearekiko konpromezua: Taldearen betebeharren antolakuntza egitea, eta norberak bere ardurak betetzea (materiala epean ekartzea).</p> <p>1.2. Taldeko lanean modu aktiboan parte-hartzea, eta kudeaketa eta taldekideen arteko harremanak zaintzea.</p> <p>1.3. Konponbideak bilatzen saiatzea, eskura dauden baliabide teknologikoak erabiliz.</p> <p>1.4. Inplementazio-prozesuaren plangintza egitea errespetuz, elkarrizketaren aldeko jarrera erakutsiz eta elkartasunez jokatzuz taldean.</p> <p>1.5. Jarrera kritikoa erakustea.</p> <p>1.6. Auto-konfiantza lantzea.</p> <p>2.1. Ekoizkin teknologikoak nola funtzionatzen duten ulertzea, eta norberak erabiltzeko modurik onenean deskribatzea.</p> <p>2.2. Ekoizkin teknologiko baten materialak, formak zein diseinua justifikatzea.</p>

<p>3. Arazo teknologiko bati erantzuna emango dioten konponbideak diseinatzea. (TG, HKG, MG, GHG, PIG, HHG, EG, NAG)</p> <p>4. Diseinatutakoa talde-lanean tailerrean gauzatzea. (TG, MG, GHG, PIG, HHG, NAG)</p> <p>5. Lortutako emaitzak eta lan prozesua ebaluatzea, ,, eta jarduerak berak natura- eta gizarte-ingurunean dituen ondorioak aztertzea. (TG, ZG, MG, GHG, PIG, NAG)</p> <p>6. Aurreikusitako edo egindako ebazpen teknikoak azaltzea, bide eta tresna egokiak erabiliz. (TG, HKG, MG, GHG, PIG, HHG, NAG)</p> <p>7. Europa eta mundu mailan, Euskal Herriko lanbide eta baliabide teknologikoak denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea, bai lanbide eta baliabide historikoak,</p>	<p>2.3. Ekoizteak, erabiltzeak eta desegiteak ingurumenean eta gizakiengan dituen ondorioak aztertzea eta baloratzea.</p> <p>3.1. Arazo teknologikoa identifikatzea.</p> <p>3.1. Aurretik antzeko premiei emandako konponbideen informazioa bilatzen eta identifikatzen jakitea.</p> <p>3.2. Funtzionamenduaren adierazpen grafikoa egitea.</p> <p>3.3. Ekoiztutakoa hobetzeko ideiak proposatzea.</p> <p>3.4. Espiritu ekintzailea garatzea.</p> <p>4.1. Baliabideak eta tresnak erabiltzean segurtasun- eta ergonomia-arauak errespetatzea.</p> <p>4.2. Arazo tekniko bat garatzeko planifikazioa burutzea, hasieratik bukaerara arazoa ebazteko asmoz.</p> <p>4.3. Ezagutza zientifikoak, matematikoak eta teknologikoak metodikoki eta modu ordenatuan aplikatzea.</p> <p>5.1. Eraikitakoak eta lortutako emaitzak bat egiten dutela konparatzea, okerrak zuzentzeko, behar izatekotan proiektu-metodoari berriro ere hasiera emateko.</p> <p>5.2. Eskatutako baldintzak kontuan hartuta, kalitate egokia eta fidagarritasun maila lortu dutela egiaztatzea, esperientzia barneratzeko eta arazo teknologikoa ebatzi dela ziurtatzeko.</p> <p>5.3. Autoestimua eta emozio-gaitasunak garatzea, prozesuan gauzatzen diren emaitzak elkarrekintzan jartzearen ondorioz.</p> <p>6.1. Informazio teknikoa, prozedurak eta sinbologia normalizatua interpretatzea.</p> <p>6.2. Lexiko egokiak erabiltzea.</p> <p>6.3. Baliabide informatikoak bideragarriak diren eta norainoko garrantzia duten aztertzea, bai eta informazioa elkar trukatzeko ere.</p> <p>7.1. Gaur egungo konponbide teknologikoak lanbide tradizionalekin alderatzen ditu.</p>
--	--

bai egungoak ere, ekonomia-sektore guztietakoak, konponbide teknologikoek izan duten bilakaera historikoaren tokiko ikuspegia eta ikuspegi orokorra izateko eta garatzeko. (TG, PIG, HHG, AG, NAG)	
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

ARAZO EGOERA I:

Testuingurua: Eztandako motorrek berebiziko garrantzia hartzen dute gazteentzat ziklomotoreak haien kabuz erabiltzeko adina heltzen zaienean. Motor txiki hauen mekanika ezagutzea abantaila ematen du apurketak ekiditeko, motorraren bizi-iraupena luzatzeko eta apurketa txiki baten aurrean autonomiaz jokatzeko mekaniko batengana jo baino lehen.

Problema: Barne errektuntzako motor baten elementuak desmuntatu eta identifikatu, ondoren, haien eginkizuna aztertzea eta ergonomiari buruzko hausnarketa egin .

Xedea: Barne errektuntzako motor baten funtzionamendua ezagutzea

Ataza: Gasolinazko motor txikia (“Desbrozadora” edo “Corta-cesped” bezelakoa) desmuntatzea ondoren berriz muntatzeko . Gutxienezko baldintza hauekin:

- Elementu bakoitzaren irudia eta azalpena
- Berriz muntatzean piezarik ez egotea soberan, eta makina atzera funtzionatzea

ARAZO EGOERA II:

Testuingurua: laz bete zen Plentziara trena ailegatu zeneko 125. urteurrena. Hainbat informazio dago horren inguruan eta modu ezberdinetan landuko da. Trenak batetik pertsonak, herriak eta ezagutzak hurbildu, eta bestetik distantziak txikitu zituen, lehenago bisitatzeko zailak ziren lekuak egunean bisitatzeko aukera emanez . Trenaren garapen historikoa handia izan da eta gaur egun automatizazio maila handira ailegatu da.

Problema: Programazio lengoia landu, eta robotekin eskarmentua hartu, robota egokituko da ibilbide itxi bat jarrai dezan. Robota trena bailitzan mozorrotuko da diseinatutako maketa baten gainean ibiliko da Plentziako herrira ekarritako garapenena agerian jartzeko asmoz.

Xedea: Plentziako herriaren garapenean izandako garrantzia agerian jartzeko helburuarekin trenaren historiari berrikusiko da. Ikaslea bere herriaren historian aurrerapen teknologikoak ekarri duten alaketak eta aurrerapenak ezagutu nahi da.

EDUKIAK:

- **1go. ebaluazioa:**
 - Elektrizitatea. 4.Blokea 7 ordu
 - Elektronika. 4.Blokea 9 ordu
- **2. ebaluazioa:**
 - Elektronika digitala. 4.Blokea 8 ordu
 - Mekanika eta Historia. 7.Blokea 7 ordu

▪ Komunikazioaren Teknologia. 5.Blokea	7 ordu
- 3. ebaluazioa:	
▪ Kontrol eta Robotika. 6.Blokea	17 ordu
▪ Pneumatika. 3. Blokea	4 ordu

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Oinarriak: Erabiliko dugun metodologia printzipio didaktiko hauetan oinarritzen da: Ikasleen parte hartzea ardatz nagusia izango da; lan pertsonalean oinarrituta taldeko lana ere bultzatuko da, guztion ideiak eta iritziak entzunez eta baloratuz. Aurretik ikasitako kontzeptuetatik abiatuko gara, lehenengo birpasatuz eta sendotuz ondoren, irakaste prozesua esanguratsua lortzeko; ikasle bakoitzak bere ezagutza eraiki behar izango du, baina prozesu horretan ikasleen arteko ikaste prozesua ez da arbuatu behar.

Denboralizazioa: Ikasturtea hiru ebaluazioetan banatuko da, bakoitzean teoria eta praktika jarduerak landuko dira. Ebaluazio guztietan proiektu bat burutuko da. Zenbaitetan proiektuekiko txosten-teknikoa aurkeztu beharko da.

Taldekatzea:

- Talde handian: gaiaren aurre-ezagupenak finkatzeko jarduerak egiteko, azalpen teorikoetan, lanen aurkezpenetan...
- Lan talde txikietan: arazoak ebatzi, txosten-teknikoak, zirkuituen praktikak, aurkezpenak, unitateei loturiko zenbait ariketa...
- Bakarka: lan monografikoak eta froga idatziak.

Jarduerak: mota desberdinetakoak proposatuko dira:

Aurre-ezagupen jarduerak, adibideak, azalpenak, sakontze ariketak, laburpenak, lan monografikoak, arazoa praktikoak, lan txostenak, aurkezpenak, objektuen eta sistemen analisiak, froga idatziak, ahozko galdeketak, praktikak, errepaso ariketak, simulazio jarduerak, errefortzu ariketak, zabaltzeko jarduerak, berreskuratze jarduerak...

Espazioaren antolaketa:

- Teknologia gela: hemen egokituko da jarduera nagusia.
- Ordenagailuen gela: informazioa jaso, programazio lengoaia(robota), simulagailuak elektronikarako eta pneumatikarako, aurkezpenak egin, eta abar.
- Ikastetxea bera: proiektuak ezagutzera emateko, maketen eta eraikuntza prozesuaren argazkiak.

Baliabideak:

Analogikoak

- Aurten ez da testu libururik erabiliko. Banatutako fotokopien bitartez eta hartutako apunteen bitartez jorratuko da irakasgaia
- Tailerrean dauden makinak, erremintak, operadore elektriko zein elektronikoak eta robotak
- Aurreko kurtsoetan ikasleek eraikitako proiektuak

Digitalak

IKT baliabideen erabilera bultzatu nahi dugu, bai ikasgairen garapenean, bai ikasleen lanetan eta ekintzetan ere. Besteen artean, ordenagailu gela, tailerrean dauden ikus-entzunezko kanoia eta ordenagailu finkoak erabiliko dira.

Egunerokotasunean eta IKT software baliabideei dagokionez Google Apps programak erabiliko ditugu uribekostabhi.com domeinua baliatuta, besteen artean:

- Gmail
- Drive
- Classroom
- Sites
- Formularioak

Horrez gain, beste baliabide batzuk ere:

- Tecno 12-18 webgunea
- Youtube

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Ebaluazioa etengabeko prozesua da.</p> <p>Hurrengoak izango dira kalifikazio tresnak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eguneroko lanaren behaketa - Froga idatziak - Egindako jardueren balorazioa - Taldearen auto-ebaluazioa - Klasearen aurrean egindako aurkezpenari bai irakasleak bai eta beste klase kideek emandako balorazioa - Txosten teknikoak 	<p>Kontzeptuak: Kontrol desberdinak egingo dira. Notaren %50a izango da.</p> <p>Prozedurak: Ebaluatzeko koadernoak, etxerako lanak eta klaseko lanak kontutan hartuko dira. Notaren %40a izango da.</p> <p>Jarrerak: Klasean erakutsitako ikasgaiarekiko interesa eta jarrera baloratuko dira. Notaren %10a da.</p> <p>Dena dela, ebaluazioa bakoitzean, ehuneko hauek egokitu ahal izango dira emandako edukiei.</p>

- Etxerako lanak	
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].	
CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].	
BERRESKURAPEN SISTEMA	
<ul style="list-style-type: none">• Unitateen berreskurapena: Azterketa bat ez badu gainditu berreskurapena egin beharko du ikasleak• Proiektuen berreskurapena: Proiektu bat ez badu gainditu txosten-teknikoa osatu eta hobetu beharko du ikasleak• Jarrerren berreskurapena: Jarrera egokia adierazi behar izango du hurrengo ebaluazioan zehar• Ebaluazioaren berreskurapena: Aurretik aipatutako hiru urratsak eman behar dira• Ikasturte osoaren berreskurapena: Ekainean ez-ohiko ebaluazioan azterketa baten bidez egingo da• Aurreko ikasturteko berreskurapena: Kurtsoan zehar hiru aukera izango ditu ikasleak.<ul style="list-style-type: none">○ Lehenengoa Urriaren hasieran. Udako-lana aurkeztu eta froga idatzia egingo du, hauetako bakoitza notaren %50 balioa izango duelarik○ Bigarrena Apirilean. Froga idatzia egin beharko du○ Hirugarrena Ekainean. Ez-ohiko azterketa egingo du	
JARDUERA OSAGARRIAK	
<ul style="list-style-type: none">• Ikasturtea aurrera doala, negu aldera, Petronor birfindegia bisitatzera joango dira teknologia ikasgaia bezala aukeratu duten 4.DBH ikasleak 1.Batxilergoko ikasleekin batera• Hobekuntza planarekin bat eginez ebaluazioetan teknologiarekin harremana duten,<ul style="list-style-type: none">○ Testuak irakurriko eta landuko dira klasean. Testuaren gaineko galdera sorta prestatuko da ulermena lantzeko, baita hausnarketa egiteko ere.○ Bideoak ikusiko dira klasean, hausnarketa egin ondoren ideia nagusien laburpena klasean komentatzeko	

OHARRAK / OBSERVACIONES

Bestalde, Institutuko proiektuekin bat eginez, teknologia eskola orduetan eta egokia ikusten den momentuetan ondoko ekimenen aldeko jarduerak burutuko ditugu edota zehar eduki lerro moduan landuko dira eta arreta berezia jarriko zaie:

Agenda 21: Kontsumoaren kudeaketa arduratsua bultzatu nahi da eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Honekin bat eginez, hondakin teknologikoen arazoa landuko da, eta birziklatutako materialak berrerabiltzea sarituko da proiektuak eraikitzerakoan.

Hezkidetza (Aniztasuna): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko zuzendutako testu teknologikoak prestatuko eta landuko dira klase saioetan ikasleen irakurmen eta ulermen maila hobetzeko asmoz. Bigarren eta hirugarren ebaluazioetan zehar testu bana jorratuko da, bata irakurmenari dagokiona, bestea berriz, ulermenari dagokiona. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

IKT: Ikasleek norberaren garapenen digital egokia eskuratzeko aintzat jotzen diren trebezia digitalak informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (ikus 5.orrian, baliabide digitalak).
Informatika gela erreserbatu da astean behin ordenagailu bidezko praktikak egiteko.